

Musika ekipo txikia erabiltzeko protokoloa.

- Edozein herritar edo taldek Musika ekipoaren eskaera Udalean egin beharko du, idatziz.
- Harreratik eskaera hori orain arte bezala tramitatuko da.
- Eskatzaileak edota espediente arduraduna den Udal Teknikaria Gaztelekuarekin harremanetan jarriko dira (943 71 82 57 edo 202 luzapena), libre dagoen ala ez jakiteko, denboraz. Eta libre balego lagapenaren gorabeherak lotuko dituzte elkarrekin.
- Eskatzaileek edozein zalantza izango balute, Gaztelekuarekin harremanetan jarri beharko dira.
- Ez dago ekipoa muntatzeko zerbitzurik, beraz Gaztelekuko langileek azalduko diete ekipoa nola muntatzen den eta nola funtzionatzen duen. Horretarako eguna eta ordua denboraz zehaztuko beharko da.
- Komenigarria litzateke ekipoarekin ibiliko dena izatea azalpenak entzungo dituen.
- Gaztelekuko langileekin adostuko dute noiz etorriko diren ekipo bila, baita noiz bueltatuko duten.
- Ekipoa bueltatzen den bakoitzean errebisatu eta probatu egingo da, egoera onean bueltatu dela konprobatzeko.
- Eskatzaileek eskatutako ekipoa azkenean ez dela erabiliko aurreikusiko balute, denboraz abisatzea ere eskatzen da.